

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO UDALA

#### Prozedura irekia Aiarako udalerriko argiteria publikoa zaindu eta mantentzeko zerbitzurako

Alkatearen dekretu bidez, 2017 eta 2021 bitarteko urteetan Aiarako udalerriko argiteria publikoa zaindu eta mantentzeko zerbitzua lizitzatzeko baldintza ekonomiko eta administratiboen agiria onartzea erabaki da. Horra hori iragarki honen bidez argitaratzen da.

##### I. Esleitzaila.

– Izena eta helbideak: Aiarako Udala, La Iglesia auzoa, 3; 01476; Arespalditza; telefonoa: 945 399013; Interneteko helbidea: [www.aiarakoudala.com](http://www.aiarakoudala.com).

##### II. Kontratuaren xedea.

– 2017 eta 2021 bitartean Aiarako udalerriko argiteria publikoa zaindu eta mantentzeko zerbitzua.

– Zerbitzu kontratua.

##### III. Prozedura.

– Irekia.

##### IV. Epea.

– Lau urte, bi luzapen egiteko aukerarekin, bakoitza urtebetekoa.

##### V. Lizitazio oinarria.

– Lizitazio oinarria: urteko aurrekontua: 13.685,00 euro gehi BEZa (2.873,85 euro), gehi material eta ekipoen prezioa. Horra hori esleitutakoaren prezioaren arabera ordainduko da.

– Kontratuaren balio zenbatetsia: 99.353,10 euro, BEZa barne.

##### VI. Bermeak.

– Behin betikoa: esleipen aurrekontuaren ehuneko 5, kontuan hartuta kontratuaren iraupena eta luzapenak.

##### VII. Kaudimena.

– Ekonomia eta finantza kaudimena eta kaudimen teknika edo profesionala, baldintza agirien V.2 klausularen arabera.

##### VIII. Esleipen irizpideak.

– Automatikoki kuantifikagarri diren irizpideak: 60 puntu.

– Balio judizio baten arabera neurtzen diren irizpideak: 40 puntu.

Xehetasunak eta haztapena: administrazio klausulen agiriaren VIII. klausulan.

##### IX. Eskaintzak non eta noiz aurkeztu.

– Epea: eskaintzak, agiriaren VI. klausulan eskatzen den dokumentazioa barne, hogeita (20) egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

– Tokia: Aiarako Udalaren Erregistro Orokorrean (La Iglesia auzoa, 3. zenbakia, Arespalditza, Araba), goizeko 9:00etatik 14:00etara, edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio prozedura erkidearenaren, 16.4 artikuluan ezarritako lekuetan.

– Agiriak: baldintza agiriak eta gainerakoak udal bulegoetan izango dute eskura interesdunek, proposamenak aurkezteko epeak irauten duen bitartean eta aipatutako ordutegian; bai eta udal honetako kontratatzailearen profilean ere, [www.aiarakoudala.com](http://www.aiarakoudala.com) web orrian.

X. Proposamenak ireki eta sailkatzea.

– Agiriaren VII. klausularen eta hurrengoaren arabera.

XI. Kontratistaren berariazko betebeharrak.

– Laneko betebeharrak, gizarte segurantzako betebeharrak eta laneko segurtasun eta osasuneko betebeharrak.

XII. Lagapena eta azpikontratazioa.

– Bai, SPKLTBaren 226tik 228ra arteko artikuluetan ezarritako mugekin.

XIII. Kontratua aldatzea.

– Interes publikoarengatik, SPKLTBaren 219. artikuluan eta harekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2016ko azaroaren 8a

*Alkate-lehendakaria*

**GENTZA ALAMILLO UDAETA**